



TXIKIEN PROBEN ARAUAK

ZORNOTZAKO KORRIKALARIAK Atletismo Klubak Zornotzako Jai Lasterketaren XIII. Edizioa antolatu du. 2024ko uztailaren 14an egingo da, 10:00etan. Ondoren, **11:00** etan, etxeko txikien probak hasiko dira.

1. Izena ematea

Izena ematea doan izango da. Internet bidez eginez gero, <https://sportmaniacs.com>, 2024ko ekainaren 3etik 2024ko uztailaren 12ra bitartean (23:59ra arte). Alderantziz, lasterketa egunean in situ eginez gero, proba hasi baino 10 minutu lehenagora arte egin ahal izango da izen-ematea.

2. Dorsalak jasotzea

Dorsalak probaren egunean bertan banatuko dira Zubiondo Parkean, irteerako/helmugako arkuaren ondoan, proba hasi baino 10 minutu lehenagora arte.

3. Kategoriak

0-4 urte bitartekoen kategoria: 2019tik 2023ra arte jaiotakoak.

5-9 urte bitartekoen kategoria: 2014tik 2018ra arte jaiotakoak.

10-14 urte bitartekoen kategoria: 2009tik 2013ra arte jaiotakoak.

15-17 urte bitartekoen kategoria: 2006tik 2008ra arte jaiotakoak.

4. Segurtasuna

Parte-hartzaile batek istripua izanez gero, bertan dagoena derrigortuta egongo da laguntza ematera, ahal duen neurrian. Erakundeak proba behar bezala egiten dela zainduko du, eta boluntarioen laguntza izango du ibilbidean zehar eta Gurutze Gorriarena helmugan.

5. Ibilbidea

Beharrezkoa izanez gero, erakundeak ibilbidea aldatzeko eskubidea izango du.

6. Irteera

Irteera Zubiondo parkean izango da.

15-17 urte bitartekoen kategoria: 11:00etan.

10-14 urte bitartekoen kategoria: 11:10ean.

5-9 urte bitartekoen kategoria: 11:20an.

0-4 urte bitartekoen kategoria: 11:30ean.

7. Erantzukizunak

Probaren aurretik, proban bertan eta ondoren ere parte-hartzaileei edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalte fisiko, moral edo materialen gaineko erantzukizun oro ukatzen du antolakuntzak.

8. Irudi-eskubideak

1. Proban parte hartzen duten guztiek onartzen dute erakundeak haien irudia publizitaterako, karteletarako eta gainerako publizitate-elementuetarako erabili ahal izatea proban eta probaren etorkizuneko edizioetan, bai eta webgunean, Facebooken, Instagram, TikTok eta abarretan ere.
2. Norbaitek ez badu nahi bere irudia erabiltzea, erakundearekin harremanetan jarri beharko du, helbide honetara idatzita: zornotzakokorrikalariak@gmail.com.